



KONTRATUAREN INEFIKAZIA ETA BALIOGABEZIA

KONTRATUZKO EFIKAZIA EZA. KONTZEPTUAK ZEHAZTEN

Efikazia eza eta baliogabezia bi plano ezberdinetan murgiltzen dira:

1. Efikazia eza eraginkorra da kontratuak sortzen dituen efektuen eremuan. Hala nola:

- (1) Baliozkoa den salerosketa kontratua, baina jabetza eskubidearen transmisioa ez dakarrena: KZ 464. art, KZ 1474. art, KZ 1955. art edo HL 34. art.
- (2) Suntsiarazpena: KZ 1124. art.
- (3) Errebokazioa: KZ 644-656 artk.
- (4) Hutsaltzea: KZ 1291-1299 artk.

2. Balio-gabezia, ordea, kontratuaren eraketa prozesuan kokatzen da

Kontratuaren oinarritzko baldintzak betetzen ez direlako, akastunak direlako edo, orobat, KZ 6. 3. artikuluan oinarrituz, xedaezina den legea aurkaratzen duelako Kode zibilean bi baliogabezi mota bereizten dira: deuseztasuna eta deuseztagarritasuna

EFIKAZIA EZA. MOTAK

1. DEUSEZTASUNA

Kausak

- (1) Kontratuaren funtsezko baldintzen falta (KZ 1261. art: existentzia eza, ez-zilegia edota zehaztugabea)
- (2) KZ 1255 eta 6.3 artk. Hala ere, deuseztasuna ez da beti ezargaria den efektua

Funtsezko ezaugarriak

- (1) Ez da beharrezkoa epai judiziala, *ipso iure*
- (2) Legitimazio aktibo zabala
- (3) Akzioaren preskripzio edo iraungitze-epe eza
- (4) Behin betikoa da



2. DEUSEZTAGARRITASUNA

Kausak	(1) KZ 1300 art.: kontratuaren funtsezko ezaugarri akastunak (2) KZ 1301 art.: adin txikiekin edo ez gaiekin ospaturiko kontratuak. Era berean, ezkontide baten adostasunik gabe buruturiko kontratuak
Funtsezko ezaugarriak	(1) Doktrina mailako eztabaida. Bi iritzi: (a) batetik, kontratua baliozko da, baina efikaziarik gabe geratu daiteke (aurkatuz gero); (b) bestetik, kontratua ez da baliozkoa, behin behineko efektuak sortu arren. Iritzi bat edo bestea jarraitzeak, berezko garrantzia izango du honako inguruabarretan: akzioaren izaera (aitortzailea edo aurkaratze akzioa) edota KZ 1301. artikulua jasotzen duen epea deuseztasuna eratzeko edo itzultze-obligazioa egikaritzeko den erabakitze orduan (2) Legitimazioa zehaztua: KZ 1302. art. Deuseztagarritasun kausa jasaten dituen kontratuaren alderdiak (3) Epea, KZ 1301. art.: lau urte, zenbatzen hasiko direnak kausen arabera.

DEUSEZTASUNAREN ETA DEUSEZTAGARRITASUNAREN EFEKTU AMANKOMUNAK

Itzultzeko KZ 1303.art.

obligazioa Prestazioa itzultzea (obligazio arruntak eta elkarrekiko obligazioak, Kz 1308. art, aldiberekotasuna)

KZ 1307. art.

Gauza galdu bada edo hirugarren baten eskutan dagoenean:

(1) Gauza galdu bada eta itzultzeko obligazioa duenak fede txarrez jokatu badu, bere gain hartzen ditu egozgarriak ez diren galerak. Kasu hauetan itzuli beharko ditu gauzak, galtzeko unean, zuen balioa, fruituak eta, bere kasuan, geroztik emandako interesak. Fede ona badago, bakarrik itzuli beharko du aberastea edo, eskualdatu badu, jasotako prezioa

(2) Gauza hirugarren bati eskualdatu bazaio:

(a) Eskualdaketa aurkaragarria bada, Kz 1303. artikulua

(b) Eskualdaketa aurkaragarria ez bada, akzio erreala

KZ 1303. art., salbuespenak

(1) Kz 1304. art: ez gaiekin egindako kontratuak

(2) Kz 1305. art: ez zilegi penalak

(3) Kz 1306. art: ez zilegi zibilak, kausa legea edo moralaren aurkakoa delako

(4) Kz 1314. art: gauzaren galera itzultzeko akzioa egikaritzeko legitimazioa duen alderdiari egozgarria zaionean. Salbuespena: ezgaia den kasuetan



**DEUSEZTAGARRIAK DIREN KONTRATUAK KONBALIDATZEKO
AUKERA. KZ 1310-1313 ARTIKULUAK**

- KZ 1310.** Deuseztagarriak diren kontratuak
art.
KZ 1312. Legitimazioa
art.
KZ 1313. Efektuak
art.

**3.
HUTSALTZEA**

- Eraentzea** KZ 1291-1299 artk.
Kausak Kaltearen ideia: KZ 1291-1293 artk.
KZ 1294 Izaera subsidiarioa
art.
KZ 1295 Itzultzeko obligazioa. Baina *in integrum* itzultzea
art. posible ez den kasuetan, posiblea da hutsaltze akzioa
tarteratzea?
KZ 1297 Hartzekodunen kaltean egindako kontratuen definizioa
art.
KZ 1298 Hirugarrenaren erantzukizuna
art.
KZ 1299 Akzioa egikaritzeko epea (4 urte)
art.